

“Alderdirik onena da gauza berriak ikasten nabilela beti”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Itziar Irakulis Loitxate

Ingeniari geomatikoa



Itziar Irakulis Loitxate

Amorebieta-Etxano, 1996.

- **Geomatika eta Topografiaren Ingeniaritza gradua** egin zuen EHU.
- **Teledetekzioko masterra** egin zuen Valentziako Unibertsitatean.
- 2020tik **doktoretza** egiten ari da Valentziako Unibertsitate Politeknikoan, LARS Lur eta Atmosferaren Teledetekzio taldearen barruan.

Itziar Irakulis Loitxate Etxanoko baserri batean jaio zen, eta beti egon da naturaz inguratuta. Hala, behatzeko, esperimintatzeko eta jakin-mina asezteko aukerak izan ditu, eta etxekoek ere ikertzeraz bultzatu dute. Eskolan ere, zientzietako gaiak zituen gustukoak. Unibertsitateko ikasketak aukeratzeko garaia iritsi zenean, berriz, zalantza handiak izan zituen, ia karrera guztiak gustatzen baitzitzaizkion.

“Oso zaila egin zitzaidan aukeratzea. Nire joera natura-zientziak ziren, baina marrazketa teknikoan, matematiketan eta fisikan ere ona nintzen, eta, beraz, ingeniarietaz ere erakartzen ninduten. Azkenean, Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako gradua aurkitu nuen. Natura-zientzien zati bat du (geologia, meteorologia, geomorfologia...), eta beste bat ingeniarietazkoa (matematika, fisika, marrazketa tekniko...) baina espazioaren esplorazioarena ere (sateliteak eta abar). Iruditu zitzaidan ate pila bat zabaltzen zituela, eta hortik jotzea erabaki nuen”, gogoratu du Irakulisek.

Onartu du erabaki ona izan zela: “Aukeratu dudana bide honen alderdirik onena da gauza berriak ikasten nabilela beti, eta zientzian, oro har, hala izaten da. Orain Lurraren behaketan nabil, sateliteak erabiliz, eta sateliteen bidez ia dena ikus daitekeenez, arlo asko ikusteko eta haiei buruz ikasteko aukera ematen dit. Hori da ikerketan aritzearen alderik onena: gauza batean jartzen duzu arreta, baina beste asko ere ikasten dituzu aldi berean”.

Haren tesia sateliteen bidezko berotegi-gasen detekzioari buruzkoa da, batez ere, metanoarena, bereizmen handian. Irakulisek ustez, klima-larrialdiarekiko ardura handiagoa dago orain, hasi zenean baino. Orduan, lau talde baino ez zeuden mundu mailan: Harvardeko talde bat, JPL (NASA), Environmental Defense Fund erakundea eta besteren bat. “Elkarlanean aritzen gara, baina, hain jende gutxi dabil honetan, dena dago egiteko. Berez, ikerketa ondo doa, baina, egia esan, ikusten ari garen isuriak

ikaragarriak dira. Gehienak erregai fosilen erauzketan sortzen dira, eta harriztekoa da nola ez duten konpontzen, isuriak izugarri handiak baitira”.

Klima-larrialdiari aurre egiten

Irakulisek esanean, isuri horiek ez dira aintzat hartu orain arte, gutxietsi egin dira. “Oraindik lan asko dago egiteko. Duela gutxi argitaratu da [nire lehen artikulua, Science Advance aldizkarian](#), eta AEBko Arro Permiarreko (Permian Basin) isuriei buruzkoa da. Arro horretan egiten dira AEBko petrolio- eta gaserauzketa nagusiak, eta bereizmen handiko sateliteak erabili ditugu ikusteko nondik datozen isuriak, eta pila bat detektatu ditugu”.

Emaitza zientifikoak alde batera utzita, gustuko du ikerketa-mundua, nahiz eta garai bereziak egokitu zaizkion. Hain zuzen, iaz hasi zuen doktoretza, Valentziako Unibertsitate Politetnikoan, eta, handik gutxira, pandemia agertu zen. Beraz, oraindik ez du ikertzailearen bizimodu normala ezagutzerik izan, baina, lan handia duen arren eta lankideekin duen harremana urrunetik den, pozik dago. “Masterra egin aurretik, enpresa batean aritu nintzen lanean, kartografian, eta han geratzeko aukera izan nuen, baina askoz ere erakargarriagoa zait ikertzea. Gainera, klima-larrialdiari aurre egiteko zerbait egin dezakedala sentitzen dut, eta horrek asko asetzen nau”.

Bukatzeko, aipatu du bere taldea orekatuta dagoela generoaren aldetik, baina beste taldeetan gizonak nagusitzen direla, nabarmen. “Badirudi sateliteak gizonen kontua direla. Nire ustez, ordea, aberasgarriagoa izango litzateke emakume gehiago egongo balira; ikuspegia osatuagoa izango litzatekeela iruditzen zait”.